**<u>HIRIGINTZA BATZORDEAREN AKTA</u>**

**Data:** 2013ko ekainaren 11
**Ordua:** 18:00

**Bertaratuak:**
**Udaleko ordezkariak**: Garbiñe Elizegi (Bildu), Mari Carmen Iribarren (UPN), Isabel Olave (UPN), Begoña Sanzberro (UPN) eta Iñigo Iturralde (Baztango Ezkerra),
Cristina Arregi (udaleko arkitektoa), eta beste bost herritar.

1. **Aurreko aktaren onarpena.** Onartzen da.

2. **LOEE**

Udal Arkitektoak LOEEren inguruan egin diren bileren berri ematen du. Prozesu parte-hartzailearen ondoren, Udal Gobernua Erredakzio Taldearekin bildu da, ondorioak ekarriko lituzkeen aldaketak helarazteko. Nafarroako Gobernuan jarraipen batzordearekin egin zen bilera. Momentu honetan, azken bertsioa iristear dago. Iristen denean, bai hirigintza batzordeko kideei, bai Foro Sektorialean parte hartu zutenei komunikazioa bidaliko zaie, dokumentua aztertu ahal izateko Foroko bilera egin baino lehen. Ondotik, osoko bilkuratik pasatuko da eta jendaurrean paratuko da.

**3. CEIN**

Espedientearen inguruko azalpenak eman dira. Berriki Errepartzelazio proiektuari behin betiko onespena eman zaio. Urbanizazioaren errezepzioa egitea falta da. Urbanizazioaren Obra Bukaeraren kopia jaso dugu Udalean. Legearen arabera, PSIS bat denez, Nafarroako Gobernuari dagokio errezepzioa. Baina,

***<u>ACTA DE LA COMISIÓN DE URBANISMO</u>***

***Fecha: 11 de junio de 2013***
***Hora:*** *18:00*

***Asistentes:***
***Representantes municipales****: Garbiñe Elizegi (Bildu), Mari Carmen Iribarren (UPN), Isabel Olave (UPN), Begoña Sanzberro (UPN) y Iñigo Iturralde (Baztango Ezkerra),*
*Cristina Arregi (arquitecta municipal), y cinco ciudadanos/as.*

***1. Aprobación del acta anterior.*** *Se aprueba.*

***2. LOEE***

*La arquitecta municipal informa sobre las reuniones mantenidas en torno a la LOEE. Tras el proceso participativo, el Gobierno Municipal se ha reunido con el equipo redactor para trasladarle los cambios que traerían consigo las conclusiones. En el Gobierno de Navarra la reunión se mantuvo con la comisión de seguimiento. En este momento, está a punto de llegar la última versión. Cuando llegue, se les remitirá una comunicación tanto a los miembros de la comisión de urbanismo como a las personas participantes en el Foro Sectorial, para poder analizar el documento antes de hacer una reunión del Foro. Luego, pasará por el pleno y se someterá a exposición pública.*

***3. CEIN***

*Se han dado explicaciones en torno al expediente. Recientemente se ha aprobado definitivamente el proyecto de reparcelación. Falta realizar la recepción de la urbanización. Hemos recibido en el Ayuntamiento la copia de Final de Obra de Urbanización. Según la legislación, al tratarse de un PSIS, la recepción le*

bide-sistema udalarena denez, CEINekin adostu dugu errezepzio bikoitza egitea. Halere, bide-sistema mantentzea kontserbazio entitatearen ardura izango da.

*corresponde al Gobierno de Navarra. Pero, como el sistema viario pertenece al Ayuntamiento, hemos acordado con el CEIN la realización de una recepción doble. Con todo, el mantenimiento del sistema viario será responsabilidad de la entidad.*

**4.ELIZONDOKO AR-1**

***4. AR-1de ELIZONDO***

Espedientearen inguruko azalpenak eman dira. 2010eko abenduan, aldaketari behin-behineko onespena eman zitzaion. Nafarroako Gobernuaren eskuetan dago behin betiko onespena ematea ala ez. Hala ere, Baztango Udalaren iritzia eskatu dute. Udaletik, Nafarroako Gobernuko txostenetan oinarrituta bidali da erantzuna. Alegia, ez dela ikusten aldaketa hori egiteko justifikaziorik eta Elizondoko herria ere aurka agertu zen.

*Se han dado explicaciones en torno al expediente. En diciembre de 2010, se aprobó provisionalmente la modificación. Está en manos del Gobierno de Navarra proceder a su aprobación definitiva. Sin embargo, han solicitado la opinión del Ayuntamiento de Baztan. Desde el Ayuntamiento se ha remitido la contestación tomando como base los informes del Gobierno de Navarra. Es decir, que no se aprecia justificación para proceder a dicha modificación y el pueblo de Elizondo también se manifestó en contra.*

**5. Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Etxebizitza sozialak.**

***5. Viviendas de Protección Oficial y Viviendas Sociales.***

Sagueseko etxebizitzen egoeraren berri eman da. Gizarte Zerbitzuetatik deialdia egin zen. 11 familiak irizpideak betetzen dituzte. Momentuan Iruritako etxebizitzetan bizi diren familiei ere dokumentazioa eskatu zitzaien. 3 familiak betetzen dituzte irizpideak, eta beste batek ez. Betetzen ez duenari etxea uzteko eskatu zaio, beharretan dauden familiei tokia uzteko.
Aldi berean, Almandoz eta Elizondoko herriei egoera larrietan dauden familien berri eman zaie eta herri horietan dauden etxebizitzen egoeraz galdetu. Oraindik ez da erantzunik jaso. Nafarroako Gobernuarekin ere gauza bera eginen da eta Oronoz-Mugairiko etxebizitzei buruz galdetuko zaio.
Lekarozko babes ofizialeko etxebizitzei buruzko informazioa eman da. Prozesua martxan dago Nafarroako Gobernuak zerrenda argitaratzeko zain.

*Se informado de la situación de las viviendas de Sagues. Desde Servicios Sociales se hizo la convocatoria. 11 familias cumplen los criterios. A las familias que viven actualmente en las viviendas de Irurita también se les solicitó la documentación. 3 familias cumplen los criterios, y otra no. A la que no cumple se le ha solicitado que abandone la vivienda para que sea ocupada por familias necesitadas.*
*Al mismo tiempo, se ha informado a los pueblos de Almandoz y Elizondo sobre las familias que se encuentran en una grave situación y se les ha preguntado en torno a la situación de las viviendas de dichos pueblos. Todavía no se ha recibido respuesta. Se hará lo mismo con el Gobierno de Navarra y se le preguntará sobre las viviendas de Oronoz-Mugairi.*
*Se ha dado información en torno a las viviendas de protección oficial. El proceso*

*está en marcha a la espera de la publicación del listado por parte del Gobierno de Navarra.*

## 6. TERMITAK

Udal Arkitektoak Elizondon termitekin arazoa dagoela erran du. Bertaratuek diote Baztan osoan izaten direla, toki hezeetan eta erreka ondoetan dauden etxetan. Tuteran eta Donezteben ere arazoak izan dira. Udaletik erabaki da Jaime Urrutia kalean dagoen egoerari buruzko ikerketa bat egitea arazoaren dimentsioa ikusteko.

## *6. TERMITAS*

*La arquitecta municipal ha manifestado que existe un problema de termitas en Elizondo. Las personas asistentes manifiestan que suele haber en todo Baztan, en las viviendas situadas en sitios húmedos y en las márgenes de regatas. Ha habido problemas también en Tudela y Santesteban. Desde el Ayuntamiento se ha decidido llevar a cabo un estudio sobre la situación de la calle Jaime Urrutia para ver la dimensión del problema.*